# I ARABAKO FORU ALDUNDIA

## Administrazio Xedapenak

*Diputatuen Kontseiluaren Foru Dekretuak*

### NEKAZARITZA SAILA

**6647**

**69/2011 FORU DEKRETUA, azaroaren 15eko Diputatuen Kontseiluarena. Honen bidez, aldatu egiten dira nekazaritzako aseguruak kontratatzeko laguntzak emateko oinarriak, uztailaren 6ko 35/2010 Foru Dekretuaren bidez onartutakoak, eta onartu egiten da aipatutako laguntzen 2011. urteko deialdia.**

Uztailaren 6ko 35/2010 Foru Dekretuaren bidez, nekazaritzako aseguruak kontratatzeko laguntzak emateko oinarriak onartu ziren.

Aipatutako oinarrietan, eskaerak aurkezteko epea eta modua arautzen dituen 8. artikuluak xedatzen du laguntza eskaerarekin batera aurkeztu beharreko agirietako bat aseguru poliza ordaindu izanaren egiaztagiria izan behar dela. Baina nahiko zaila da hori betetzea, aseguruak urrira aldera ordaindu ohi direlako, eta horregatik logikoagoa da eskaera aurkezten denean eskatu ordez laguntza ordaintzen denean eskatzea egiaztagiri hori.

Beste alde batetik, eskatzailea pertsona juridikoa den kasuetan, sozietatearen egoitza eta zerga egoitza Araban izatea eskatzen da. Betebehar hori betetzat joko da pertsona juridikoaren zerga egoitza eta sozietatearen egoitza, bai eta gutxienez kapital sozialaren ehuneko 50eko partaidetza duten bazkideen erdienak, gutxienez, Araban egonez gero; betebeharra betetzen ez dutenen proportzioan murriztuko dela partaidetza hori. Alderdi horiek eskaera aurkezten denean egiaztatu beharko dira, eta hori egiaztatzeko aurkeztu beharko diren agiriak zehaztu egin behar dira.

Dekretu horren 10. artikuluak laguntzak balioesteko kide anitzeko organo bakarra ezarri du, foru dekretuan araututako aseguru mota guztietarako laguntzak azter ditzan, bi talde argi dauden arren. Horrenbestez, bidezkoa da organo independenteak izendatzea eta laguntza horiek egintza desberdinetan ebaztea eta ez bakar batean, 10.2 artikuluak ezartzen duen modura.

Horrek guztiak behartu egiten du uztailaren 6ko 35/2010 Foru Dekretuaren bidez onartutako laguntza hauek arautzen dituzten oinarriak aldatzera, eta oraindik 2011rako deialdia onartu ez denez, eta gastuen aurrekontuan kreditua badagoela kontuan hartuta, bidezkoa da dekretu honetan bertan aipatutako deialdia onartzea.

Aginduzko txostenak aztertu eta gero, Nekazaritza Saileko foru diputatuak proposatuta eta Diputatuen Kontseiluak gaur egindako bilkuran gaia aztertu ondoren, hauxe

XEDATU DUT

Lehenengoa.- Nekazaritzako aseguruak kontratatzeko laguntzen 2011. urteko deialdia onartzea; hona hemen xehetasunak:

• Eskaerak aurkezteko epea: hilabetekoa, foru dekretu hau ALHAOn argitaratzen den egunetik hasita.

• Deialdiari aurre egiteko kreditu erreserba: 30.000,00 euro; kopuru horretatik 25.000,00 euro mahastien aseguruetarako izango dira eta 5.000,00 euro, gainerako laboreen aseguruetarako. Dirua Arabako Foru Aldundiaren 2011. urteko indarreko gastuen aurrekontuko 40.1.00.42.00.450.00.01 “Nekazaritzako aseguruak” partidaren kontura ordainduko da (xedapen erreferentziak: 11.1.11.105.4790/000 eta 11.1.11.105.4791/000, hurrenez hurren).

Bigarrena.- Uztailaren 6ko 35/2010 Foru Dekretuari aldaketa hauek egitea onartzea:

**Bat.- 8. artikulua aldatzea. Aurrerantzean ondoko testua izango du:**

8. artikulua.- Eskaerak aurkezteko epea eta modua.

# DIPUTACIÓN FORAL DE ÁLAVA I

## Disposiciones Administrativas

*Decretos Forales del Consejo de Diputados*

### DEPARTAMENTO DE AGRICULTURA

**6647**

**DECRETO FORAL 69/2011, del Consejo de Diputados de 15 de noviembre, que modifica las bases de concesión ayudas para la contratación de Seguros Agrarios aprobadas por Decreto Foral 35/2010, de 6 de julio, y aprueba su convocatoria para 2011.**

Por Decreto Foral 35/2010, de 6 de julio, se aprobaron las bases para la concesión de las ayudas para la contratación de Seguros Agrarios.

En el artículo 8 de las citadas base, que regula el plazo y forma de presentación de solicitudes, dispone entre la documentación a presentar junto con la solicitud de ayuda, la acreditación de haber abonado la póliza del seguro, hecho que es bastante difícil de cumplir ya que normalmente los seguros se abonan hacia el mes de octubre, siendo más lógico exigir esta acreditación en el momento del pago de la ayuda y no en el de solicitud.

Por otra parte, en el caso de que la solicitante sea persona jurídica, se exige que el domicilio social y fiscal sea en Álava entendiéndose que se cumple cuando tanto el domicilio fiscal y social de la persona jurídica como el de al menos el 50 por ciento de los socios y socias que a su vez posean una participación de al menos el 50 por ciento del capital social, esté situado en Álava, reduciéndose aquélla en proporción a los que no cumplen, debiendo acreditarse estos extremos en el momento de la solicitud, siendo necesario concretar la documentación a aportar para dicha acreditación.

El artículo 10 de dicho Decreto establece un único Órgano Colegiado de Valoración para analizar las ayudas a todo tipo de seguros regulados en el Decreto Foral, cuando sin embargo hay dos grupos claramente diferenciados, considerando procedente nombrar Órganos independientes así como resolver estas ayudas en actos diferenciados y no en uno solo tal y como establece el artículo 10.2.

Todo ello obliga a modificar las bases reguladoras de estas ayudas aprobadas por Decreto Foral 35/2010, de 6 de julio, y dado que todavía no se ha aprobado la convocatoria para 2011, y de que existe crédito en el Presupuesto de Gastos, proceder en el mismo Decreto aprobar dicha convocatoria.

Vistos los informes preceptivos, a propuesta del Diputado Foral de Agricultura y previa deliberación del Consejo de Diputados en Sesión celebrada por el mismo en el día de hoy,

DISPONGO

Primero.- Aprobar la convocatoria para el año 2011 de las ayudas destinadas a la contratación de seguros agrarios con el siguiente detalle:

• Plazo de presentación de solicitudes: un mes desde el mismo día de publicación del presente decreto Foral en el BOTHA.

• Reserva de crédito para hacer frente a la citada Convocatoria: 30.000,00 euros de los que 25.000,00 euros serán para seguros de viñedo y 5.000,00 euros para seguros en el resto de cultivos, con cargo a la partida 40.1.00.42.00.450.00.01 “Seguros Agrarios” del vigente Presupuesto de Gastos de la Diputación Foral de Álava para el año 2011, con referencias de contraído 11.1.11.105.4790/000 y 11.1.11.105.4791/000, respectivamente.

Segundo.- Aprobar las siguientes modificaciones al Decreto Foral 35/2010, de 6 de julio:

**Uno.- Modificar el artículo 8, quedando redactado como sigue:**

Artículo 8.- Plazo y forma de presentación de solicitudes.

8.a.- Urtero laguntza deialdi bat onartuko da. Deialdian laguntza lerro bakoitzeko eskaerak aurkezteko epea adieraziko da eta laguntzak emateko erabiliko diren kredituak zehaztuko dira.

8.b.- Laguntza eskaera inprimaki normalizatuan egin eta leku hauetan aurkeztu behar da:

- Mahastien aseguruetarako laguntza eskaerak, Mahastizaintza eta Enologia Zerbitzuaren egoitzan (Guardia).

- Nekazaritzako gainerako aseguruetarako laguntza eskaerak, ustiategia dagoen eskualdeko nekazaritza bulegoan.

8.c.- Kasu batean zein bestean, eskaerarekin batera agiri hauek aurkeztu behar dira:

- NANaren edo IFKren fotokopia, lehenago aurkeztu ez bada.

- Eraketaren eskritura publikoa, baldin eta eskatzailea sozietate zibila edo ondasun erkidegoa bada eta lehenago aurkeztu ez bada.

- Eskatzaileak Gizarte Segurantzarekiko betebeharrak eta zerga betebeharrak egunean dituelako ziurtagiria.

Eskatzaileak berariazko eskuordetza eman ahal izango dio Nekazaritza Sailari, zerbitzu egokiei eskatzeko aurreko puntuan aipatutako ziurtagiriak eta agiriak.

- Aseguru polizaren fotokopia.

- Pertsona juridikoen kasuan, ondoko agiri hauek ere erantsi beharko dira: estatutuen fotokopia eta eraketaren eskritura publikoaren fotokopia.

- Akziodun diren pertsona fisikoen edota partaidetza duten sozietateen izen zerrenda, bai eta partaidetza horren ehunekoa ere, egiaztatzen dituen agiria, kudeatzaileak egindakoa.

- Bazkide den pertsona fisiko bakoitzaren zerga egoitzaren ziurtagiria, Ogasunak emandakoa.

- Eskatzailea poliza kolektiboa egin duten nekazaritzako ekoizleen elkartea bada:

- Aseguru polizaren fotokopia.

- Aseguruari heldutako nekazari bazkideen zerrenda (laborea eta azalera zehaztuta); bakoitzaren NANaren fotokopia, lehendik aurkeztuta ez badago; Gizarte Segurantzarekiko betebeharrak eta zerga betebeharrak egunean dituelako ziurtagiria.

- Eusko Jaurlaritzaren elkarteen erregistroan inskribatuta egotearen ziurtagiria.

- Arabako Foru Ogasuneko eta Gizarte Segurantzako ordainketak egunean dituela ziurtatzen duen agiria.

8.d Agiriren bat falta bada, eskatzaileek 10 egun baliodunseko epea izango dute horiek aurkezteko, eskatzen zaizkien egunetik aurrera eta larunbatak zenbatu gabe. Epe horretan agiriak aurkeztu ezean, eskaera iraungi eta artxibatu egingo da.

**Bi.- 9. artikuluaren izenburua aldatzea. Izen berria honakoa izango da: "Izapideak, ebazpena, jakinarazpena eta ordainketa". Era berean, artikulu horretan c) atala gehituko da eta ondoko edukia izango du:**

9.c.- Foru dekretu honetan araututako laguntzak ordaintzeko ezinbestekoa da onuradunak aurretik ondokoak aurkeztea: aseguruaren poliza laguntza eman den urteko abenduaren 31 baino lehen ordaindu izana egiaztatzen duten agiriak.

**Hiru.- 10. artikulua aldatzea. Aurrerantzean ondoko testua izango du:**

10. artikulua.- Laguntzak balioesteko kide anitzeko organoa eta laguntzak aukeratzeko irizpideak.

10.1 Mahastietarako aseguruak kontratatzeko laguntzak balioesteko kide anitzeko organoan jarraian adieraziko diren pertsonak edo beraiek eskuordetzen dituztenak ariko dira:

- Mahastizaintza eta Enologia Zerbitzuaren burua.

- Mahastizaintza eta Enologia Zerbitzuari atxikitako teknikariak.

- Administrazio Kudeaketa Atalaren burua.

10.2.- Gainerako laboreetarako aseguruak kontratatzeko laguntzak balioesteko kide anitzeko organoan jarraian adieraziko diren pertsonak edo beraiek eskuordetzen dituztenak ariko dira:

- Nekazaritzako Laguntza eta Zabalkunde Zerbitzuaren burua.

- Nekazaritzako Laguntza eta Zabalkunde Zerbitzuari atxikitako teknikariak.

8.a.- Anualmente se aprobará la correspondiente convocatoria de ayudas que incluirá el plazo de solicitudes de cada línea de ayudas y los créditos destinados a la resolución de la misma.

8.b.- La solicitud de ayuda se presentará en impreso normalizado en los siguientes lugares:

- En el Servicio de Viticultura y Enología sito en Laguardia, en caso de ayuda para seguros de viñedo.

- En la Oficina Comarcal Agraria correspondiente a la ubicación de la explotación, en caso de ayuda para el resto de seguros agrarios.

8.c.- En ambos casos se deberá acompañar de la siguiente documentación:

- Fotocopia del DNI o CIF, si no ha sido presentado anteriormente.

- Escritura Pública de constitución si el solicitante es Sociedad Civil o Comunidad de Bienes y no ha sido presentada con anterioridad.

- Certificado de hallarse la corriente con las obligaciones de la Seguridad Social y con las obligaciones fiscales.

El solicitante podrá delegar expresamente en el Departamento de Agricultura para que solicite a los Servicios correspondientes, los certificados y documentos señalados en el punto anterior.

- Copia de la póliza de Seguro.

- En el caso de persona Jurídica, además se adjuntará fotocopia de los Estatutos, Copia de la Escritura Pública de Constitución.

- Documento emitido por la gerencia, que certifique la relación nominal de las personas físicas que componen el accionariado, y/o de las sociedades que tengan participación, así como porcentaje de ésta.

- Certificado de Hacienda que acredite el domicilio fiscal de cada persona física socia.

- En el caso de asociación de productores y productoras con póliza colectiva:

- Copia de la póliza de Seguro.

- Relación de personas agricultoras socias con el cultivo y superficie acogido al seguro, fotocopia de su DNI si no ha sido presentado anteriormente, certificados de estar al día con las obligaciones de la Seguridad Social y con las obligaciones fiscales.

- Certificado de inscripción en el Registro de asociaciones del Gobierno Vasco.

- Certificado de estar al día con la Hacienda Foral Alavesa y con la Seguridad social.

8.d Los solicitantes dispondrán de un plazo de 10 días hábiles, excluidos los sábados, contado desde la fecha de su requerimiento para completarla con la documentación que le sea requerida, caducando aquella y procediéndose a su archivo, caso de no hacerlo en dicho plazo.

**Dos.- Modificar el título del artículo 9, que pasará a denominarse "Tramitación, Resolución, Notificación y Pago" y añadir a este artículo el apartado c) con la siguiente redacción:**

9.c.- El abono de las ayudas previstas en este Decreto Foral se realizará previa presentación por parte de la beneficiaria de documentación que acredite el pago de la póliza del seguro, siempre con anterioridad al 31 de diciembre del año de concesión de la ayuda.

**Tres.- Modificar el artículo 10 quedando redactado como sigue:**

Artículo 10.- Órgano Colegiado de Valoración y criterios de selección de las ayudas.

10.1 El Órgano Colegiado de Valoración de las ayudas para concertar seguros de viñedo estará compuesto por quien a continuación se indica o en quien deleguen.

- Jefatura del Servicio de Viticultura y Enología.

- Personal técnico adscrito al Servicio de Viticultura y Enología.

- Jefatura de la Sección de Gestión Administrativa.

10.2.- El Órgano Colegiado de Valoración de las ayudas para concertar seguros para otros cultivos previstos en este Decreto estará compuesto por quien a continuación se indica o en quien deleguen:

- Jefatura del Servicio de Ayudas y Divulgación Agraria.

- Personal técnico adscrito al Servicio de Ayudas y Divulgación Agraria.

- Administrazio Kudeaketa Atalaren burua.

10.3.- Foru dekretu honetan araututako laguntzak lehiaketa bidez emango dira. Talde hauek daude:

- 1. taldea: Arabako patata ziurtatuaren uztan gerta litezkeen denetariko diru galeren aseguruak, eta barazki laborantzako aseguru konbinatuak eta ezohiko kalteen aseguruak.

- 2. taldea: Ardogintzako mahatsaren ustiapenaren aseguruak, eta ardogintzako mahatsaren aseguru konbinatuak eta ezohiko kalteen aseguruak.

Bidezko ehunekoak aplikatu ondoren gutxieneko zenbatekora heltzen ez diren eskaerak baztertu eta 6. artikuluan ezarritako gehieneko zenbatekoa gainditzen dutenak txikitutakoan (salbuespenak kontuan hartuta), hauxe egingo da: laguntza talde bakoitza modu independentean ebatziko da, harik eta talde bakoitzerako ezarritako kreditua amaitu arte.

Talde bakoitzerako ezarritako kreditua taldeko eskaera guztiei erantzuteko nahikoa ez bada, zenbatekoa denen artean hainbanatuko da.

Talde bateko eskaeretarako kreditu osoa erabiltzen ez bada eta beste taldeko eskaeretarako dirua falta bada, sobera dagoen zenbatekoa beste taldeko krediturako erabiliko da.

Hirugarrena.- Foru dekretu hau ALHAOn argitaratzen den egunean sartuko da indarrean.

Vitoria-Gasteiz, 2011ko azaroaren 15a.– Diputatu nagusia, JAVIER DE ANDRÉS GUERRA.– Nekazaritza Saileko foru diputatua, FRANCISCO DE BORJA MONJE FRÍAS.– Nekazaritza zuzendaria, LUIS JAVIER ROMÁN DE LARA.

- Jefatura de la Sección de Gestión Administrativa.

10.3.- La concesión de las ayudas previstas en el presente Decreto Foral se tramitarán en régimen de concurrencia, estableciéndose los siguientes grupos:

- Grupo 1º: Seguros de pérdidas pecuniarias diversas en la cosecha de patata certificada de Álava y Seguros combinados y de daños excepcionales en cultivos hortícolas.

- Grupo 2º: Seguro de explotación de uva de vinificación y seguros combinado y de daños excepcionales en uva de vinificación.

Una vez excluidas las solicitudes que, tras aplicarles el porcentaje de ayuda no lleguen al importe mínimo y limitadas las que sobrepasen el importe máximo establecidos en el artículo 6, con las excepciones que en él se establecen, se procederá a resolver de forma independiente cada uno de los grupos de ayudas hasta agotar el crédito destinado a cada uno.

Si el crédito destinado a cada grupo no alcanzase para atender a todas las solicitudes del mismo se procederá al prorrateo entre ellas.

En caso de que se produjera excedente de crédito en un grupo y déficit en otro, éste se incrementará con aquél.

Tercero.- El presente Decreto Foral entrará en vigor el día de su publicación en le BOTHA.

Vitoria-Gasteiz, 15 de noviembre de 2011.– Diputado general, JAVIER DE ANDRÉS GUERRA.– Diputado foral de Agricultura, FRANCISCO DE BORJA MONJE FRÍAS.– Director de Agricultura, LUIS JAVIER ROMÁN DE LARA.

## NEKAZARITZA SAILA

**6664**

**72/2011 FORU DEKRETUA, azaroaren 23ko Diputatuen Kontseiluarena. Honen bidez, aldatu egiten da nekazaritzako aseguruak kontratatze aldera laguntzak emateko, 2011ko deialdiaren baitan eskaerak aurkezteko epea. Deialdi hori azaroaren 15eko 69/2011 Foru Dekretuaren bidez onartu zen.**

Azaroaren 15eko 69/2011 Foru Dekretuaren bidez nekazaritzako aseguruak kontratatzeko laguntzen 2011. urteko deialdia onartu zen.

Lehenengo xedapen zatian ezarri zen hilabeteko epea egongo zela eskaerak aurkezteko, deialdiaren foru dekretua ALHAOn argitaratu eta hurrengo egunetik aurrera.

Epe horrek laguntza lerro horiek ematerakoan eskaerak aurkezteko epea eta izapidetze, ebazpen eta jakinarazpen prozedura gehiegi luzatuko dituela iritzi da.

Ondorioz, aldatu egiten da nekazaritzako aseguruak kontratatze aldera laguntzak emateko, 2001eko deialdiaren baitan eskaerak aurkezteko epea.

Aginduzko txostenak aztertu eta gero, Nekazaritza Saileko foru diputatuak proposatuta eta Diputatuen Kontseiluak gaur egindako bilkuran gaia aztertu ondoren, hauxe

XEDATU DUT

Bakarra.- Azaroaren 15eko 69/2011 Foru Dekretuko lehenengo xedapen zatiko lehenengo puntua aldatzea. Honela geratuko da idatzita:

Eskaerak aurkezteko epea: hamabost egun, foru dekretu hau ALHAOn argitaratzen den egunetik hasita.

Vitoria-Gasteiz, 2011ko azaroaren 23a.– Diputatu nagusia, JAVIER DE ANDRÉS GUERRA.– Nekazaritza Saileko foru diputatua, FRANCISCO DE BORJA MONJE FRÍAS.– Nekazaritza zuzendaria, LUIS JAVIER ROMÁN DE LARA.

## DEPARTAMENTO DE AGRICULTURA

**6664**

**DECRETO FORAL 72/2011, del Consejo de Diputados de 23 de noviembre, que modifica el plazo de presentación de solicitudes de la convocatoria del año 2011 para la concesión ayudas para la contratación de Seguros Agrarios aprobadas por Decreto Foral 69/2011, de 15 de noviembre.**

Por Decreto Foral 69/2011 de 15 de noviembre, aprobó la convocatoria para el año 2011 de las ayudas destinadas a la contratación de seguros agrarios.

En su dispongo primero se establecía que el plazo de presentación de solicitudes sería de: un mes desde el mismo día de publicación del Decreto Foral de la convocatoria en el BOTHA.

Considerando que este plazo supondría una demora excesiva para el plazo de presentación de las solicitudes y en el procedimiento de tramitación, resolución y notificación en la concesión de esta línea de ayudas.

En consecuencia, procede modificar el plazo de presentación de solicitudes par la convocatoria para el año 2011de las ayudas destinadas a la contratación de Seguros Agrarios.

Vistos los informes preceptivos, a propuesta del Diputado Foral de Agricultura y previa deliberación del Consejo de Diputados en Sesión celebrada por el mismo en el día de hoy,

DISPONGO

Único.- Modificar en el dispongo primero, el punto primero, de Decreto Foral 69/2011, de 15 de noviembre, que quedará redactado de la siguiente manera:

Plazo de presentación de solicitudes: 15 días naturales desde el mismo día de publicación del presente Decreto Foral en el BOTHA.

Vitoria-Gasteiz, 23 de noviembre de 2011.– Diputado general, JAVIER DE ANDRÉS GUERRA.– Diputado foral de Agricultura, FRANCISCO DE BORJA MONJE FRÍAS.– Director de Agricultura, LUIS JAVIER ROMÁN DE LARA.